

2005eko laugarren hiruhilekoan aurreko urteko aldi berean baino ume gehiago jaio da

2005eko laugarren hiruhilekoan 4.919 ume jaio ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, eta urte osoan 19.584 ume.

EUSTATEN datuen arabera, 2005eko laugarren hiruhilekoan 4.919 ume jaio ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %0,7 gehiago. Horietatik, 1.593 ume urrian jaio ziren, 1.632 azaroan eta 1.694 abenduan. Lurraldeka, Araban 647 ume jaio ziren, Bizkaian 2.594 eta Gipuzkoan 1.678.

2005eko Jaiotzen Estatistikako behin-behineko datuen arabera guztira 19.584 ume jaio ziren, 2004. urtean baino %0,7 gehiago.

2005eko azken hiruhilekoan, jaiotzen hurrenkeraren arabera, jaiotako umeen erdia baino gehiago (%57,8), 2.845 ume, bikotearen lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.758 ume (%35,7) aurretik beste seme-alabaren bat zuten familian jaio ziren; eta 316 ume (%6,4) bikotearen hirugarren seme-alaba eta handik gorakoak izan ziren.

Lau jaiotzatatik hirutan amak 30 urte baino gehiago zituen

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzean ikus daiteke 30-34 urteko amak oraindik nagusi direla, jaiotzen %45,2 adin-tarte horretan gertatu baitziren. Bigarren adin-tarte nagusia 35-39 urtekoa da (%26,9), adin horretako emakume kopuruak 25-29 urtekoarena (%17,6) gainditzen baitu; 20-24 urteko adin-tarteak, aldiz, kopuru txikiena izan zuen %5,8.


Ama gehiago izan ziren 40 urtetik gorako emakumeen artean (%4,5) 20 urtetik beherakoen artean baino (%1,2).

Jaiotza guztien %25,6 ezkontzatik kanpokoak izan ziren, hau da, 2004. urteko aldi berean baino %2,5 gehiago. Lurraldeka, jaiotza horietariko gehienak Araban eman ziren (%29,1), gero Bizkaian (%25,1) eta azkenik Gipuzkoan (%24,9).

Taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Aldatzea-taula

	2005eko 4. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2005eko 3. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2004ko 4. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.919	100,0	4.883	100,0	4.887	100,0
Araba	647	13,2	702	14,4	689	14,1
Bizkaia	2.594	52,7	2.481	50,8	2.517	51,5
Gipuzkoa	1.678	34,1	1.700	34,8	1.681	34,4
Amaren adinaren arabera	4.919	100,0	4.883	100,0	4.887	100,0
<= 24 urte	287	5,8	251	5,1	288	5,9
25 - 29 urte	866	17,6	864	17,7	889	18,2
30 - 34 urte	2.222	45,2	2.220	45,5	2.176	44,5
35 - 39 urte	1.322	26,9	1.336	27,4	1.321	27,0
>= 40 urte	222	4,5	212	4,3	213	4,4
Jaiotza-hurrenkera	4.919	100,0	4.883	100,0	4.887	100,0
Lehenengoa	2.845	57,8	2.865	58,7	2.841	58,1
Bigarrena	1.758	35,7	1.727	35,4	1.736	35,5
Hirugarrena edo gehiago	316	6,4	291	6,0	310	6,3

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria100 =b.b.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp